

EBAZPENA, 2025EKO ABENDUAREN 23KOA, UPV/EHU-KO TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, UNIBERTSITATEA-ENPRESA-GIZARTEA 2025 IKERKETA-PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA

Eskaerak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, Ikerketa Errektoreordetzaren web-atarian argitaratu zen, 2025eko abenduaren 4an, onartutako eta ukatutako eskabideen behin-behineko ebazpena, eta 10 egun balioduneko epea eman zen alegazioak aurkezteko.

Epe hori igaro ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak aurkeztutako alegazioak aztertu ditu, eta dirulaguntza emateko behin betiko ebazpen-proposamena aurkeztu dio ikerketako errektoreordeari, Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitara dezan.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- I. eranskinean jasotako emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda onartzea, lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

Bigarrena.- Ebazpen hau Ikerketa Errektoreordetzaren web orrian argitaratzeko agintzea. Hautatutako proiektuak indarrean egongo dira eta gastuak egotzi ahal izango dituzte ebazpen hau argitaratzen den egunetik 2026/12/31ra arte (urte bateko proiektuetan) edo 2027/12/31ra arte (bi urteko proiektuetan), baina inola ere ezin izango dira luzatu.

Hirugarrena.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, honako aurkaratze-bide hauek aurkeztu daitezke, inola ere ez aldi berean:

1.- Horren aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, banakako jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Administrazio-errekurtso hori aurkeztuz gero, administrazio-isiltasunez ezetsitzat joko da, baldin eta errekurtsoa aurkeztu eta hilabeteko epean berariazko ebazpenik ematen ez bada; kasu horretan, hurrengo paragrafoko jurisdikzio-bidea irekiko da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea 6 hilabetekoa izango da, aukerako berraztertze errekurtsoa presuntzioz ezesten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua).

2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, 2 hilabeteko epean, banakako ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioa, 2025eko abenduaren 26an

TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEA
VICERRECTORADO DE TRANSFERENCIA E INTERNACIONALIZACIÓN

ONARTUTAKO ETA UKATUTAKO BEHIN BETIKO ZERRENDIA

KODEA	IN NAN	IRIZPIDE 4	IRIZPIDE 1-2-3	IP - CoIP EMARUME	AZKEN PUNTUAZIOA	BEHIN BEHINEKO EBAZPENA	PROPOSATUTAKO LAGUNTZA
US25/29	723***35C	20,00	63,5	2	85,50	ONARTUTA	2.000,00
US25/24	789***04T	15,02	65	2	82,02	ONARTUTA	1.400,00
US25/22	142***72E	20,00	52,5	2	74,50	ONARTUTA	1.333,30
US25/38	789***18T	8,57	63	2	73,57	ONARTUTA	11.500,00
US25/09	306***98R	9,23	60,5	2	71,73	ONARTUTA	12.000,00
US25/15	145***97P	10,13	61,5	0	71,63	ONARTUTA	5.050,00
US25/33	Y05***20Z	1,93	67	2	70,93	ONARTUTA	36.000,00
US25/19	441***61B	7,18	55	2	64,18	ONARTUTA	20.000,00
US25/25	441***81Y	0,00	61	2	63,00	ONARTUTA	16.000,00
US25/12	788***59J	3,13	57	2	62,13	ONARTUTA	19.800,00
US25/37	727***84P	0,00	61,5	0	61,50	ONARTUTA	33.800,00
US25/14	446***01W	6,15	53,5	0	59,65	ONARTUTA	14.000,00
US25/30	160***24Z	0,00	57,5	2	59,50	ONARTUTA	25.500,00
US25/32	441***68Y	0,00	53,5	2	55,50	ONARTUTA	11.000,00
US25/13	201***52D	8,29	45	2	55,29	ONARTUTA	12.800,00
US25/34	456***48E	0,54	54,5	0	55,04	ONARTUTA	7.500,00
US25/16	306***00S	7,18	43	2	52,18	ONARTUTA	20.000,00
US25/10	728***24L	0,00	50	2	52,00	ONARTUTA	10.000,00
US25/26	152***51A	0,00	45,5	2	47,50	ONARTUTA	7.200,00
US25/28	727***33K	0,00	42,5	2	44,50	ONARTUTA	6.500,00
US25/21	724***23Q	0,00	41	2	43,00	ONARTUTA	13.985,00
US25/08	341***06L	0,00	34	2	36,00	UKATUTA	
US25/18	357***27G	0,00	33,5	2	35,50	UKATUTA	
US25/11*	153***39X	1,33	68	0	69,33	UKATUTA	

* Enpresa parte-hartzaileak hitzartutako ekarpena egiteari uko egin dio.